

artikulu nabarmenak
artículos destacados



abendua/diciembre

ÁMBITOS

2017

nº38

ORTEGA MIRANDA, Estibaliz. [Jóvenes adultos y prensa: un análisis de la relación y la cobertura mediática de los jóvenes al Norte y Sur del Mediterráneo](#). Ámbitos. Revista Internacional de Comunicación. Sevilla: Departamento de Periodismo II, Universidad de Sevilla. 2017, (38), 1-18. ISSN 1139-1979.

Egoerak, alfabetatze-tasak, irakurketa-ohiturek, komunikabideen sinesgarritasunak eta gizarte-, familia- eta hezkuntza-testuinguruak erabakitzen dute zer neurritan hurbiltzen diren gazteak komunikabideetara. Gazteak prentsatik urruntzea azaltzen duten faktoreen artean, faktore horiek ezezta badaitezke ere, honako hauek aipatu dira: irakurketa-indize apala, denborarik eza, kostua, interesik ez izatea azken berriei buruz... Prentsa jeneralistak dagokiena baino garrantzi txikiagoa ematen die gazteei, ez du lehenetsuneko informaziorik ematen; gazteak gutxitan agertzen dira, eta ia beti kolektibo problematiko moduan azaltzen dira, beste batzuen ekintza edo ekimen publikoen jasotzaile moduan, ezarritako ordena hausteari lotuta, edo biktima gisa. Gazteak protagonista dituzten berriak bigarren mailakoak dira. Nabarmena da prentsan falta direla gazteen irudi eraikitzaileago bat ematen duten albisteak. Gazteek prentsan jasotzen duten tratua azal dezake zergatik ez duten aukeratzeko gertatzen denaren berri izateko bitarteko moduan



ALBERDI ALONSO, Inés. [El retraso de la procreación y el mantenimiento de la juventud](#). Metamorfosis. Revista del Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud. Madrid: Fundación de Ayuda contra la Drogadicción, marzo 2014, (0), 9-25. ISSN 2341-278X.

Gaztaroa zergatik luzatzen den honako faktore hauek azaltzen dute: aldaketa demografikoek; familia-aldaketek eta, horri lotuta, ezkontza desinstituzionalizatzeko; egungo gazteen ezaugarriek (askatasunak eta erantzukizunik ezak); berdintasunak; seme-alaben balio berriak, gora egin baitu; umeak haztea eta lana bateratzeko arazoak; amatasunaren kontzeptuak (oso gizarte-balio handikoa); aitasunak (pertsonek betiko konprometitzen baitu); sexu-harremanen liberalizazioak; bizitza luzatzeak... Orain arte, inoiz ez du hainbeste iraun, eta inoiz ez zaio hain ausarki eusten saiatu. Bizitzaren luzapena aurreratuta, izatea espero den bizi-denbora hori gaztarooan baliatzea aukeratzeko da; gaztarooa luzatzearen alde egiten da, eta gero ikusiko da. Seme edo alaba izatea konpromiso berria da, atzerazina, eta gaztarooa amaitzen du. Horrenbestez, eragina du umea izatea gerorako uzteko erabakian

GENTILE, Alessandro y Ana Lucia HERNÁNDEZ CORDERO. [Transición a la vida adulta y políticas de juventud en Suecia](#). Cuadernos de investigación en juventud. Mérida: Consejo de la Juventud de Extremadura, julio 2017, (3), 1-14. ISSN 2530-0091.

Helduaroan sartzeari dagokionez, sartze hori luzeagoa eta konplexuagoa da suediar gazteen artean espainiar gazteen artean baino. Espainiarrek lan egonkorra izan behar dute etxetik ateratzeko; suediarren ustez, berriz, bizi-legea da. Estatuak bekak eta ostatatze merkeak ematen ditu gazteek ikasten badute, edo, bestela, gutxieneko soldata. Suediar gazteak hazten diren ingurune instituzionalak ezaugarri ditu gizarte-babesa herritarren eskubidea izatea, familia-betebeharrak oso-oso txikiak izatea eta ongizatea norberaren esku egotea, baina Estatuak emana. Gazteen arloko politika esparru transbertsal bat da, eta gizarte-politikatik kanpo dago. Helburu nagusia gazteen motibazio pertsonala, kontzientzia demokratikoa eta osoko herritartasuna sustatzea da, gazteak ahalik eta azkarren eta eraginkorren heldu beregain bihurtzea. Norbanakoaren erantzukizuna sustatzen du, portaeraren elementu utziezin moduan. Suediar gazteen % 80k irabazi-asmorik gabeko elkarteetan parte hartzen du. Suedian, gazteei buruzko politikek ez diote jarraitzen konpromiso konstituzional bati, Suediako Parlamentuak onartutako legeei baizik. Ministerio guztiek ardua espezifikoa dute gazteei dagozkien gaitan, eta toki-agintariek autonomia dute erabaki asko eta askotan, eta gazteen beharrekin bat datozen sektorearteko programak eguneratzeaz arduratzen dira. Toki- eta eskualde-agintarien elkarte nazionala dago, bai eta Gazteen Arazoetarako Kontseilu Nazionala ere, zeinak Gazteriaren Institutuak (INJUVE) betetzen dituen eginkizunen antzekoak betetzen baititu.

